


**Larunbat honetan
osatuko da
udalbatza berria**

**Erreusaren bilketa
bi astean behin egingo
da aurrerantzean**

**Ostiral honetan,
Gure Esku Dagoren
bilera irekia**

noa.ua



Zumarte Musika Eskolak

30. urteurrena ospatuko du sasoi betean

KIWI LABORANTZA

Egitaraua:

- Kiwi laborantzaren ezaugarri orokorrak eta Inausketa berdea. Ekainak 18, osteguna
- Lurraren maneia: Ongarriketa. Ureztapena. Irailan. (data taldearekin adostuko da)
- Neguko inausketa: Formaziorako, fruktifikaziorako, emearena, arrarena.. Abenduan. (data taldearekin adostuko da)



Ordutegia: Arratsalde 15.30 – 18.30

Ikastaroaren prezioa 25€-takoa izango da (Alkartasuna Kooperatiba eta Biolur Gipuzkoaren bazkideak doan).

IZEN-EMATEA: Alkartasuna kooperatiba • Atallu industrialdea 26, USURBIL Tel: 943 361 114 • e-maila: alkartasuna@usurbil.com

Lehenengo 6
 erosleentzako,
 garaje bikoitza
 banakako
 prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA
 INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
 20009 Donostia

E.: contacto@viviendasslanin.com

943 46 88 60

www.viviendasslanin.com



Albisteak iruditan



Lasarte-Usurbil BHI Institutuko ikasle hauek 2. Batxilerra amaitu berri dute.

Lasarte-Usurbil BHI Institutuan amaitu da ikasturtea. 2. Batxilerrako ikasleei agurra egin zieten aurkeztean. “Ana Galarraga Elhuyarrek

kazetariak hitzaldia eskaini zigun, eta ondoren diploma banaketa eta lunch-a izan genuen”. Aurten, Beñat Urruzola, Aitziber Rubio eta Aitor Arzaluz ikasleek ohorezko

matrikula lortu dute eta aipamen berezia Julen Cocho, Ane Galardi, Eukene Uli eta Fermin Balda ikasleek. Udako oporraldiaz gozatzeko garaia dute orain.

Laburrean

Aginagako Udako Txokoetako izen ematea

Ostiral honetan itxiko dute izen ematea. Apuntatzeko: 607 484 597 (Ainhoa) edo aginaga@eskolatxikiak.org. Prezioa, izen emate kopurua-ren arabera zehaztuko dute. Ekainaren 22tik aurrera, uztaila amaierara arte iraungo du. Egutegia, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara (sarrera ordua, 10:00ak arte).

San Juanetako oilasko biltzaileen bazkaria

Ekainaren 19tik 24ra ospatuko diren Kalezarko jaien baitan, Oilasko Biltzaileen Eguna antolatuko dute hilaren 20rako. Biltzaile txikiak kalejiran irtengo dira goizean, eta gero bazkaria antolatuko dute plazan. Otordurako txartelak Kaffa kafe-tegarian salgai izango dituzte ekainaren 10etik 17ra.

“Zure enpresa nola sortu eta kudeatu”

Eskualdeko udalek eta Lanbideak sustatuta, Gertu Asesores, S.L. enpresak doako ikastaro berri bat emango du. Ekintzaileei eta lan merkatuatzeko helburuarekin auto enpleguan aukera ona ikusten dutenei zuzenduta dago. Egutegia: ekainak 16 eta 17. Izen ematea: 943 30 42 21 (Nerea Yurrebaso) / ekinan@andoain.org / Lanbide Bulegoetan.

noqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noqua.eus /// www.noqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola,
Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara
Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Arana-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udalak



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luis Aranalde

“Hotzaldi”ren berotasuna

Eliza inguruan sortutako erakunde guztien artean Caritasek izango du estimurik handiena jende aurrean. Berak jartzen baitu praktikan Frantzisko Aita Santuaren desira: “eliza pobrea pobreentzat”.

Besteak beste, esparru hauetan lan egiten du Caritasek: Aterpe: bere helburua premia duten pertsonen harrera egitea eta laguntzea da. Bertan, pertsona horiek motibatu nahi dira, prozesu pertsonal bat has dezaten, autonomia eta bizi-kalitate hobea lortzeki begira. Betania: hiesa edo sida harrapatu eta familiako babesik ez duten pertsonentzako harrera etxea da. Laguntza etxe: etorkinentzako arreta zerbitzua da, erreferentzia leku egoki bat. Laguntza etxe horretan etorkinei entzun eta harrera ona egiten diete.

Hotzaldi da laugarren esparrua: etxerik ez duten pertsonak urte osoan gauetz hartzeko proiektua da. Ostatu duin eta segurua eskaintzea da helburua. 40 plaza eskaintzen ditu eta 89 boluntario eta 5 langile ari dira bertan. Talde honek harreman, konpainia eta entzuketak eskaintzen ditu. Boluntarioen dedikazioa, entrega eta jarrerari esker, gauak atseginagoak dira eta bakardadea arintzen da.

Hotzaldik hasiera bitxia izan zuen: Bordeleko Familia Sakratuak moja komunitate bat du Donostian. Bertako ki-

dea da Maria Jesus Amondarain amezketarra eta berak kontatzen duenez etxe ondoan zuten eliza ez zuten erabiltzen eta administrazio lanak egiten zituen mojak esan zion, norbaitekin harremanetan jartzeko, egoitza horri erabilgarritasuna eman diezaioten. Eta elkarrizketa batzuen ondoren, Caritas Gipuzkoak Hotzaldi proiektua jarri zuen martxan. “Guretzat Hotzaldi aukera bat izan da premia dutenen alde zerbait egiteko. Hutsik genuen leku bat beraien zerbitzuan jarri dugu. Horretaz gain, etxeko moja batzuek egoitzan banatzen diren toallen eta galtzerdien garbiketan jarduten dute. Hamar urte bete ditu Hotzaldik. Eta orain lekaimeek dituzten lokal batzuetara eraman dute Hotzaldi egoitza berria. Harrera hobea eskainiko diete bertara hurbiltzen direnei, leku aproposa baita denen esanetan. “Kontentu gaude; pauso pozgarria izan da denontzat. Esku onetan utzi dugu guk hasitako bidea”, dio Maria Jesusek.

Mojen elkartearentzat “Hotzaldi eraberritze bat izan da; eragingarri berri bat euren bizitzarako”. Beren aburuz, Hotzaldiari ateak irekiz, kongregazioaren karismari eta bokazioari erantzuten ari dira. Izan ere, elkartearen sortzailea Baionako apaiz bat izan zen: Louis Édouard Cestac. 1801ean jaio zen eta Angelun hil zen 1868an.

Maiatzaren hogeita hamaikan beatifikatu dute Baionako katedrallean. 1842an Mariaren Zerbitzarien Ermandadea eratu zuen. Baionako katedralera destinatu zuten eta auzoetako miseriak kupituta, umezurtzen eta prostituzioa utzi nahi zuten neskei laguntzen hasi zen. Harrera etxe bat (“Paradisu Handia”) sortu zuen Baionako hiriak prestatu zion etxe batean. Ez zien arerio samurrei aurre egin apaizak. Dunak eta hondarra izan zituen arerio. Jendeak zera esaten omen zuen: “Apaizak lur horiek erosi ditu haizeak barre egin diezaion”. Hamasei aldiz aritu omen zen pinuak aldatzen. Egun, Angelun dauden pinuak berari esker daude zutik. “Nire bizitza txiroen eta txikien artean pasa dut; saiatu naiz zor dieten guztia ematen”. Hori izan zen bere bizitzaren helburua.

Hotzaldira etortzen direnak nahiz eta egoera gogorrean egon, hamar urte hauetan ez da gatazkarik egon. Hori oso azpimarragarria da arduradunen esanetan. Arrakasta horretan boluntarioek rol oso garrantzitsua izan dute, funtsezko papera bete dute. Lana eskuza-baltasunez, erantzukizunez eta ilusioz egiten baitute. Debako talde batek ere parte hartzen du boluntario lan honetan, Mantako Solidarioak eginez. Debako Hirugarren Mundua taldea da. Parrokoaren eraginez erabaki

zuten, bakoitzak bere trebetasunaren arabera, mantak ehuntzen saiatuko zirela. Mantak piloa egin omen dute eta Debako behartsuen artean eta Caritasek zenbait proiektutan banatu dituzte. “Behartsuenei berotasuna ematea da gure lanaren helburua”, gaineratu dute.

Aurtengo negua hotza izan da. “Gauero Hotzaldira etortzen diren pertsonen eskua ematen diegun bakoitzean, eskuak hotz-hotzak dituztelako edo giza kontaktua behar dutelako, guretzat, gure lana suspertzeko modua da. Gau askotan gerturatzen naiz Hotzaldira, bertan daudenekin hitz egitera. Nahi duten bakar bakarra hurbiltasuna da”, dio Mamik; bere ile zuriarengatik deitzen diote horrela Maria Angelesi, Hotzaldira etortzen diren etorkinek.

L'Abbé Pierrek (Paris 1912-2007) hitzaldi famatu bat egin zuen 1945ean Luxemburgoko irratian: “L'insurrection de la bonté” (bihotz zabaltasunaren matxinada) deitu zioten bere berbaldiri. Honela zioen: “behartsuenei zerbitzuan jartzea da benetako bakearen iturburua”. Hotzaldiko boluntarioen lema izan daiteke esaldi hori edo ebanjelioko beste hau: “arrotz nintzen eta etxean hartu ninduzun”. Bejondeiela eta jarrai dezatela hotzaldiak berotasun fisiko eta giza berotasunaren aterpe bihurtzen.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Ilazki Gaintza | **Luis Aranalde** | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas

OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

egunero **06:00tik 21:00ra** (asteburutan ere) PUNTAPAX 16 (ARTZABAL)

ostiralero
PINTXO-POTEA!!!

KAFEA + GOZO BAT
GARAGARDO + FRUITU LEHORRAK

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Udalbatza berria osatuko da larunbatean



Eguerdiko 12:00etan hasiko den ekitaldian izendatuko dute Xabier Arregi alkate.

2011-15 legegintzaldia amaitzean da. Asteazken honetarako 19:00etan deitua zegoen azken osoko ezohiko bilkura, aurreko maiatzaren 21eko plenoko akta onartzeko. Egungo alkate eta zinegotziek azken aldiz hitza hartzeko aukera zuten, larunbatean eratuko da eta, datozen lau urteotarako udalbatza berria. Eguerdiko 12:00etan ospatuko den ekital-

dian izango da. Udalbatza eta alkate berria hautatuko dira hitzorduan. Zinegotzi helduenak eta gazteenak osatuko duten mahaiak bideratuko du alkate berria bozkatzeko saioa. Dena aurreikusi bezala badoa, EHBilduko hautagai Xabier Arregi izendatuko dute alkate. Egungo alkate Mertxe Aizpuruaren eskutik jasoko du aginte ikurra, zumia.

Legegintzaldia borobiltzeko EHBilduren bi ekitaldi

Koalizioak maiatzaren 24ko hauteskundeak baloratzeko EHBilgunea eta 2011-15 legegintzaldian Udalean izan duten taldea agurtu eta eskertza adierazteko ekitaldia antolatu ditu egunotarako. Hitzordutan eta larunbatean udalbatza berria eratzeko ospatuko den ekitaldian parte hartzeko gonbita luzatzen dute:

Ekainak 11, osteguna

19:00 EHBilgunea Potxoenean: maiatzaren 24ko hauteskundeetako emaitzen balorazioa.

Ekainak 13, larunbata

Udalbatza berria eratzeko ekitaldiaren ostean, EHBilduko udal taldea izan denari eskertza eta udal talde berriari harrera ekitaldia udaletxe aurreko Joxe Martin Sagardia plazan.

Deitzailea: Usurbilgo EHBildu.



Larunbaterako ekitaldia deitu dute udaletxeko plazan.

Ika-Mika

Arropen bizitzaren alde

Gehiegi dut armairuan, oraindik gehiago behar dut? Edo nahia da? Moda? Begiratu armairuan. Kontatu zenbat galtza, niki, alkandora, gona, soineko, galtzerdi, kulero, txapela, oinetako, bufanda, galtzontzilo, galtza motz, pirata, manga luze, txaleko, peto... Gauza mordoxxa ditut.

Eta ba al dakit nondik datozen, nortzuk dauden horren guztiaren atzean? Ze material den, nondik lortua, nork egin duen prenda hori, ze kondiziotan, ze mimorekin... ideia zipitzik ere ez!

Ba ia jantzi horien guztien atzean enpresa handiak daude, milioiak irabazten eta langile asko eta asko baldintza penagarrietan dituztenak. Emakumeak gehienak (betikoa), India, Maroko, Txina... Lau xoxen truk 10-12 edo ordu gehiago lanean etxera diru sarriera mixero batengatik. Hori bai! Guri beharrak asetzen dizkigute, ze ondo! Modan nago, arropa berri eta garestia daukat gainera! Kar kar! Niri bost!

Ez dut gertu ikusten hori guztia, eta ikusten ez dudanez, sentitu ere

ez. Ba pentsatzeko modua aldatu beharra daukat! Eta jarrera aldatu! Aukeran, nahiago dut arropa trukatu lagun eta familiaren artean, bigarren eskuko denda batean erosi (merkeago gehienetan gainera), euskal disenatzaileen arropa erosi...

...aldaketa egin dut! Ze poza! Lagun eta familiarrek nahi edo behar ez duten arropa hartzen dut gus-tura, nik erabiltzeko, beste norbaiti emateko edo tela aprobetxatzeko (kustimizatuz edo eraldatuz, pampinak sortzeko...). Gainera arropa horrek beste ukitu bat du. "Bizitza

bat eduki duena, orain nik erabili-ko dudana modu batera edo bestera, gero beste norbaitek" jasangarritasuna! Enpresa horiei ez diet elikatzen, nire poltsikoak ez du ia gasturik pairatzen, ingurugiroari ere ez diot kalte berdina egiten, gutxiago erosten dut...

Eta zuk zenbat arropa duzu armairuan? Nahi baduzu truka genezake! Animatu zaitetz aldaketa egitera, eskertuko dute eta esker-tuko duzu! Kontatuko didazu ;)

Zorione Mendez

“Zapalkuntza sistema anitzak”, Matraken kafe-tertuliarako gaia

Autodefentsa feminista ikastaroa antolatu zuen aurreko larunbatean, Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Balorazio ezin hobea egin du ekimenaz, Matrakak Talde Feministak. “Larunbatean ederki ibili ginen ‘autodefentsa feminista’ ikastaroan Maitena Monroyrekin. Hemezortzi emakumek hartu genuen parte bertan, 17 eta 70 urte bitartekoak, izugarrizko esperientzia izan da! Mila esker Parekidetasuna Usurbil-i honelako ekitaldiak antolatzegatik! Bertaratutako guztiei, esan, larunbatekoa zuekin konpartitzea plazer bat izan zela”, adierazi dute Matrakek.

Talde feministak ekitaldiok antolatu ditu asteotarako:

Ekainak 18, osteguna

21:30 “Arrakala” dokumentalaren emanaldia frontoian. Zer da heteroaraua? Nola egituratzen da bizi garen jendartearen? Nola eragiten digu gure bizitzetan eta harremanetan?

Galdera horiei nolabaiteko erantzuna bilatu nahian,



Autodefentsa feminista ikastaroa egin zuten aurreko astean, Potxoenean.

TERTULIAN HIZPIDE

“Sistema sexistaz gain, gure emakume nortasuna zeharkatzen duten zapalkuntza sistema ugari badirela ikusiko dugu, hala nola, etorkin izatea, arraza beltzekoa izatea, lesbiana izatea...”

Arrakala proiektua jarri dugu martxan Topatu gazte proiektu komunikatiboak eta Bilgune Feministak elkarlanean”.

Informazio gehiago:
www.arrakala.net

Ekainak 20, larunbata

Potxoenean egingo dute kafe tertulia berria. Gaia: “Zapalkuntza sistema anitzak”. “Nola osatu izan dugu gure emakume nortasuna eta zer du ikusteko horretan diskriminazioak eta bereizkeriak. Sistema sexistaz gain, gure emakume nortasuna zeharkatzen duten zapalkuntza sistema ugari badirela ikusiko dugu, hala nola, etorkin izatea, arraza beltzekoa izatea, lesbiana izatea, hirugarren adinekoa eta abar”.

■ Ekainak 20 larunbata, 11:00etan Potxoenean.

Ika-Mika

Ekainaren 21ean Donostiara

Egun hauetan urtea bete da ekimen bikaina burutu genuela. Hasieran erronka zaila zirudiena bete ezik gaingidizteraino iritsi ginen. Durangotik Iruñearainoko bide ertzak elkarri eskua emanez bizitako egoeraren ondorio xume alaiaren kokatu genezake, zenbaiti malko itxaropentsuz blaitu izana begiak. Zahar, heldu, gazte, ume, haur, emakume eta gizonezkoiei irribarra irten zitzaigun ezpainetan. Benetan

egun gogoangarria Gure Esku Dago elkarrekin edo taldeak antolatutakoa.

Urtebete eskasera erronka berri baten aurrean gaude. Eskuak elkarri emanez lotu ginen orduan eta oraingoan Euskal Herriko Herrialde bakoitzean ditugun futbol zelaia betetzera goaz. Ez da erronka makala. Hamarkada batzuk igaro diren arren, gogoratzen dut, euskararen aldeko oihua aldarrikatuz nola bete genituen guztiak, eta ziur naiz, oraingoan ere,

bakoitzak bere aletxoa jarriaz leporaino beteko ditugula berriro.

Usurbildarrok Donostiarako deia jaso dugu eta lehengo urtean bizi izan genuen itxaropentsuzko ilusio alai hura azalean dugularik, ehunduz josi dezagun ekainaren 21a eta lortu nahi dugunera irribarre eginez inguratzen joan gaitezen elkarrekin. Eutsi goiari eta Donostian ikusiko gara.

Orkatz

Afaria, Kantu Taldearen ikasturtea borobiltzeko

Ikasturtea biribiltzeko, afari bat antolatu dute Kantu Taldekoek. Ekainaren 19an batuko dira Patri jatetxean. Irekia da deialdia, edonor joan daiteke afarira. Hori bai, aurrez izena eman behar da, 686 969 112 (Ana) telefonora deituta.

Santixabel jaietako ginkana

Uztailaren 3an ospatuko da Santixabeletako Umeen Eguna. LH-ko ikasleei bideratutako ginkanan parte hartu ahal izateko, Udarregi Ikastolan dabiltzan umeei gelan galdetu eta apuntatuko zaie, eta beste usurbildar umeek email bidez izen emateko aukera izango dute ekainaren 19ra arte.

Inskripzioa banaka edo talde egin daiteke.

Gurasoentzat oharra

Umeen Egunerako gurasoen laguntza ere premiakoa izango da. Egunean laguntzeko prest bazaud, bidali email bat, izena, deitua eta hartu emanetarako telefono zenbakia adieraziz. Laguntzeko nahiz Umeen Eguneko ginkanan izen emateko helbidea hauxe: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com

Asier Azpiroz, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Gipuzkoa Bertsotan amaituta, 30 bertsolarik lortu dute txapelketarako txartela. Horien artean da Asier Azpiroz Iztueta zubietarra. Txapelketa irailaren 20an hasiko da.

Ziortzako kanpaldiaren muntaia

#kanpaldia15 prestatzen hasi dira Ziortzako kideak. Muntaia ekainaren 27an egingo dute eta desmuntaia abuztuaren 8an.

Izen-ematea email bidez egin daiteke: ziortzage@gmail.com

* Ika-Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika-Mika atalean adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: ekainak 19. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 15.

Erreusaren bilteta bi astean behin, uztailetik aurrera

Orain arte, erreusa atez ate biltzeko iganderoko zerbitzua eskaintzen zuen Udalak. Eta hala izaten jarraituko du ekaina amaierara arte. Uztailetik aurrera ordea, zerbitzua hamabosterokoa izatera igaroko da. Erreusa bi igandean behin bilduko dute, ohiko ordutegian. Aldaketaren zergatia Udaletik azaldu digute. "Urtebete igaro da sortzez besteko ordainketa eta bilteta sistema hasi genuenetik. Urtebete honetan batu ditugun datuetan oinarritu gara erabaki hau hartzeko", azaldu digute Ingurumen Sailetik.

Udalak emandako datuen arabera, etheen %97ak bi astean behin edo gutxiagotan ateratzen du ontzi grisa. Gutxiagotan eta ontzia hondakinez beteagoa dela. Gainera, "lehen, astero 2,2 tona erreus biltzen bagenuen batz bestea, orain 1,8 tonaren bueltan gabiltza. %18 erreus gutxiago biltzen dugu etxeetan.



Ekainaren 18aren bueltan, eskuorri bat banatuko dute etxex etxe.

INGURUMEN SAILA

"Urtebete igaro da sortzez besteko sistema hasi genuenetik. Urtebetean batu ditugun datuetan oinarritu gara neurri hau hartzerakoan"

Kopurua murriztu da". Eta badira bilteta maiztasun honekin arazo-

rik gabe dabilzan udalerrriak. Astigarragan esaterako. "Erreusa atez ate biltzen hasi zirenetik, bi astero biltzen dute. Harremanetan gaude eurekin eta ez da inolako arazorik jaso handik".

Erabaki honekin gainera, udal baliabideak eraginkortuko dituztela aipatu digute.

Eskuorrien banaketa

Aldaketa honen berri emateko, ekainaren 18aren bueltan, eskuorri bat banatuko du Udalak etxex etxe, argibideekin eta nahi dugun lekuan ikusgarri izateko 2015 eta 2016ko erreusaren egutegi biltetarekin. Halere gogoan izan, zalantzarik duenak argibide gehiagorako duela Atez Ateko Bulegoan:

Doako telefonoa: 900 776 776.

Ordutegia: 09:00-14:30 (astelehenetik ostiralera).

Helbidea: Puntapax kalea, 10 behe. Usurbil (20170).

E-maila: atezate@usurbil.eus

Erraustegiaren aurka, txistu egitera joateko deia

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkartek erraustegiaren aurkako pitada masiboa deitu du larunbat arratsaldeko 17:00etarako, Foru Aldundiko egoitzaren aurrean, hau da, Donostiako Gipuzkoa plazan. Eguzkik eta Gipuzkoako Erraustetaren Aurkako Plataformen koordinadorak bat egin dute deialdiarekin.

Herritarrek "inposatu nahi diguten erraustailuaren kontra" antolatu duten mobilizazioan parte hartzea deitzen dituzte. Eta ondoren, 17:30etan Alderdi Ederren AHT-ren aurka deitua dagoen manifestazioan parte hartzea baita.

"Azken asteotan, bolo-bolo ibili da txistu eginaz protesta egiteko zilegitasunaren inguruko eztabaida. Arrazoiak daudenean protesta egitea zilegi dela garbi dago. Hu-



Larunbatean, Foru Aldundiko egoitzaren aurrean batzeko deia egin dute.

rrengo lau urteotarako Gipuzkoako erakunde nagusien gidaritza hartuko dutenek, karramarroak bezala atzera egiteko asmoa azaldu dute. Zero zabor bidea utzi eta, zabor poltsa ipar hartuta, erraustetaren bidetari ekiteko mehatxu egin dute. Gure osasuna, ingurumena eta dirua jokoan dago. Badugu protesta-rako motiborik, badugu txistualdi edo pitada bat egiteko arrazoirik. Hori dela eta, ekainaren 13an, Donostiako Gipuzkoa plazan erraustetari ezetz esango diogu ozenki,

pitada masibo baten bidez. Zero Zabor bideak ezin du etenik izan", ohartarazi du Zero Zabor Ingurumen Babeserako elkartek. Informazio gehiago: gipuzkoazz.com

Atxikimenduak biltzen ari dira

Erraustailurik nahi ez duen herritarren mugimenduak atari berria du sare sozialetan; zehazkiago esanda, Facebook-en, "Gipuzkoa erraustailurik gabe" orrialdean. Orrialdea partekatzeko deia egin dute.

Pasaian, atez atekoa kentzeak

Hauteskundeak irabaztekotan atez atekoa bertan behera utziko zuela agindu zuen Pasaiaiko PSE-EEK. Denis Itxaso San Marko Mankomunitateko presidentek jakinarazi zuenez, Izaskun Gomez hautagai sozialistak eskatu dio jada mankomunitateari edukiontzia jartzeko Pasaiaiko herrian.

Aisialdiko udal diru-laguntzak eskatzeko garaia

Adi, amaitzeaz dugun 2014-15 ikasturtean zehar aisialdi begirale edo zuzendari ikastaroak egin edo euskara ikasten aritu zireten usurbildarrok. Udal diru-laguntzak eskatzeko aukera izango duzue laster. Aisialdi-koak ekainaren 15etik 26ra eta euskarakoak, ekainaren 25etik uztailetaren 8ra. Aisialdiko udal diru-laguntza deialdiaren berri zehatzagoa segidan:

■ Eskaerak aurkezteko epea: ekainaren 15etik 26ra.

■ Eskariak aurkezteko lekua: udal erregistroa.

■ Onuradunak izateko baldintzak:

-Usurbilen erroldatua egotea.

-Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.

-Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortzea. Araututako epearen barnean titulua lortu ezean, itzuli egin beharko zaio udalari jasotako diru-laguntza.

Banatuko diren diru-laguntzak: -Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 euro).

-Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 170 euro).

■ Informazio gehiago:

www.usurbil.eus

Ekainaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.


Larunbat honetan, sagastien udako inausketa ikastaroa

III. Sagastiak Loretan zikloaren baitan, ikastaro berri bat: sagastien inausketaren ingurukoa. Ikastaroa teorikoa eta praktikoa izango da. Aitor Etxeandia nekazaritza Ingeniariak bideratuko du larunbateko ikastaroa.

■ Ekainak 13 larunbata.

■ Ordua: 10:15ean Potxoe-n.

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



BAZKIDEN TXOKOA



ASTE HONETAN...NOAUAKO
barkide guztien artean
202ketatuko dUGUN SARIA...



2 LAGUNENTZAKO
ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN

noaual euskararen aterpe

Guztiok batera, “Lotzen GaTTunk” abestera



Irailaren 12an, milatik gora lagun jarri nahi dituzte kantuan. Mikel Laboa plazan izango da ekitaldia, Herria Anitza Egunean.

Erronka handi bat du herri honek irailaren 12an: mila lagunetik gora, denok batera #Kilometroak15 ekimeneko sintonia, “Lotzen GaTTunk” abestu eta dantzatzeari Mikel Laboa plazan.

Jaione Eskudero Udarregi Ikastolako musika irakaslea eta ikuskizunetako batzordea ari dira bideratzen ekimen honen prestaketa lan guztiak. “Irailaren 12an II. Herria Anitza Eguna ospatuko da, Usurbilgo herritar anitz horiek bat egin, aniztasun hori ikusgarri egin eta elkarbizitza sustatzeko. Egun horren baitan burutuko dugu ekimen hau. Ekimen honek, nolabait, Udarregi Ikastolan eta herrian bertan dagoen aniztasuna, pertsona ezberdin guztiok batera kantatuko dugu eta azkenean aniztasun hori lotuko du abestiak dioen moduan, euskarak eta ikastolarekiko atxikimenduak”. Hasi berri dituzte entsegu saioak. Jaione Eskudero musikako irakasleak dakartza zehaztasun gehiago.

Erronka berria ikastolatik sortu da?

Jaione Eskudero: Guri bururatu zaigun ideia da. Lotzen GaTTunk

JAIONE ESKUDERO

“700 umetik gora baditugu eta euren senideak, guraso eta ikasle ohiak ere animatu dira... Jada bagara gutxienez 1.000 lagun”

abestia grabatzerakoan, hemen denok kantatzeko desiatzen ginen. Ikastolako irakaslea izanda nik ere abestu nahi nuen. Leku bat egin zidaten eta abestiaren zati txiki bat kantatu nuen. Baina hemen ikusten zen, jende piloak ere abestu nahi zuela. Eta pentsatu genuen, zergatik ez, gonbidapen hau ikastola osoari zabaldu? Hortik etorri zen dena. Zati piloa ditu kantak. Horregatik, denok dena abestu beharrean, taldeka bakoitzak zati bat abestea bururatu zaigu. Denontzako lekua dago, kanta honek denontzako ematen du.

800-1000 lagun gutxienez bildu nahi dituzue?

Kontuak atera ditut. 700 umetik gora baditugu eta euren senideak, guraso eta ikasle ohiak ere animatu dira... Jada bagara gutxienez 1.000 lagun. Ez dakit herrian kabituko ote ga-

ren. Entseguen aste honetan hastekoak gara. Ikusiko dugu zenbat jende datorren. Herri osoarekin, ikastolako partaide denekin kontaktatzen dugu.

Abestia talde bakoitzak zati bat abestuko du?

Taldeka bai. Eta gero denok batera abestu eta dantzatuko dugu. Bi gauzak batera egingo ditugu. Entsegu saioetan, kantarekin batera mugimendua sartuko dugu. Oso polita joango da. Kilometroak-eko kanta 1.000 pertsona elkarrekin abestea ez da inoiz inon ikusi. Usurbilen irailaren 12an egingo dena, usurbildarrek bakarrik lortuko dute. Horrek garrantzia handia du herri baterako, hor ikusten baita herri-tarren elkartasuna eta indarra.

Zer iruditzen zaizu abestia?

Erritmo oso ederra du, adin guztietarako abestia da.

Jokoa eman dezake?

Oso ederra iruditzen zait. Oso alaia, adin guztietarako. Ditu fonemak ere, gattunk eta halakoek, erritmoa dute.

Taldeakako entsegu saioak antolatu dituzue. Denon aholak izan dezakete lekua ekin

men honetan?

Ikastola denok gara. Gurea den zerbait sentitu behar dugu. Animatu abestera! Ez deiala inork pentsa, ahots txarrik duenik, ahots denak dira onak. Animatzea besterik ez da behar. Desafinatzeak ez du axola, parte hartzea da garrantzitsuenena. Batere kezkarik eta lotsarik gabe etorri eta parte hartu!

Entseguak Agerialden

Egunotan hasi dituzte irailaren 12ko erronkarako entsegu saioak Agerialdeko musika gelan. “Azaldu zaitez!”, luzatu dute gonbita antolatzaileek. Honatx prestaketa hitzorduon egutegia:

Ekainak 10, asteazkena

■ 18:30 Ikasle eta ikasle ohien senideak: amak, izebak, amonak...

■ 19:00 Ikasle eta ikasle ohien senideak: aitak, osabak, aitona...

Ekainak 11, osteguna

■ 14:30 LH eta DBHko irakasle eta irakasle ohiak.

Ekainak 12, ostirala

■ Ikastolako langileak: jangelako langileak, autobuseko arduradunak, garbitzaileak, mantenuko arduraduna, arduradun ohiak...

Ekainak 15, astelehena

■ 14:45 DBHko ikasleak eta ikasle ohiak.

Ekainak 17, asteazkena

■ 18:30 Lehen entsegu saio orokorra; Agerialdeko jolastokian.

Tokia: entsegu saioak Agerialdeko musika gelan, ekainaren 17ko entsegu orokorra aldiz Agerialdeko jolastokian.

Oharra: entsegu saio gehiago iraila hasieran.

UDA HONETAN ZATOZ **ZEN** EGITERA

eta nuke, baleki, zenekien...

*ritzaion
dezakezu
litzaibake*

*genekien
zetorren
naitzke*

AURKI EZAZU
ZURE BARNEKO OREKA.
EUSKARAREN BIDEZ

*eman izena
Gipuzkoako euskaltegietan*

Zumarte Musika Eskolaren egun handia

25. urteurrenean, ahalegin berezia egin zuten Zumarte Musika Eskolako kideek. Oraingoan, 30garrenean, bestelako ospakizuna iragarri dute. Baina hau ere, aparta. Egund bete ekitaldi. "Larunbat honetan egingo duguna ez dugu aurretik inoiz egin: egun osoko egitaraua prestatu dugu eta ikasle guztiek hartuko dute parte", Idoia Arruabarrenak aditzera eman digunez.

Txistularien kalejirarekin hasiko da eguna, eta talde ezberdinek frontoian eskainiko duten kontzertuarekin amaituko da festa. Goizean goizetik ordu txikiak bitartean, musika etenik gabe.

Txistularientzako ensaioa

Lehen ekitaldian, txistularien kalejirari, gaur egungo ikasleek hartuko dute parte "baina lehendik txistulari izan zirenak ere animatu eta gonbidatu nahi ditugu". Ekainaren 11n osteguna, arratsaldeko 19:00etarako entsegu bat deitu dute. Bertan parterhartzera animatu nahi dituzte gaur egun, nahiz garai batean, txistua edo atabala jotzen zuten herritarak: "hiru kantu erraz ensaiatuko ditugu, hemen, Zumarten", Idoia Arruabarrenak azaldu digunez. Horixe beraz, entsegurako gonbitea.

Bazkaria Artzabalen

Larunbat eguerdian bazkaria antolatuko dute Artzabalen, "irakasleak, juntakideak eta ikasle helduak batuko gara. Zeren gaztetxoentzat merienda modukoa antolatu dugu datorren asterako". Herritarren bat animatuko balitz, 10 eurotan dauke txartelak salgai, Zumarte Musika Eskolan. "Beti pasilloetan aritzen



30 urte bete ditu aurtengo Zumarte Musika Eskolak. Larunbatean ospatuko dute.

IDOIA ARRUABARRENA

"Irakasleak lan pilo bat egiten ari dira larunbatari begira. Egia esan, oso giro majoa dago irakasleen artean"

gara hemen, eskolan, eta horregatik bazkaria aitzakia ederra izango da elkartzeko, eta patsada gehiagorekin egoteko".

"Eskerrak eman behar zaizkie irakasleei"

Ikasleak ez ezik, irakasle guztiak murgildu dira larunbateko ospakizunaren antolaketan. Idoia Arruabarrenak hori azpimarratu digu: "eskerrak eman behar zaizkie irakasleei. Oso motibatuta daude eta lan pilo bat egiten ari dira. Egia esan behar

bada, oso giro majoa dago irakasleen artean".

Matrikulazioarekin pozik

Urteurrenaz galdezka hurbildu gara Zumarte Musika Eskolara. Baina matrikulazio epea oraintsu amaitu da eta horretaz ere aritu gara Zumarte Musika Eskolako ardura-dunarekin: "ikasle kopurua iazko berbera da".

Eskaintza ere iazkoaren antzekoa izango da. Orokorrean, martxa berbera izango du ikasturteak, nahiz eta "instrumentuetako plazen izen-ematean igoera eman den". Plaza kopurua baino handiagoa izan da eskaera instrumentu batzuetan, eta zozketa egin behar izan dute, "baina gehienak pozik daude, gehienei eskatutako instrumentua egokitu zaie", Arruabarrenak azaldu digunez.

Urteurreneko ekitaldiak

Ekainak 13, larunbata

- 10:30 Txistularien kalejira.
- 12:30 Musika Txokoko 4/7 urteko ikasleen emanaldia frontoian.
- 17:00 Zumarte-Txiki, Zumarte eta Zumarte-Gazte abesbatzen emanaldia Elizan, Andoingo abesbatza taldeekin batera.
- 19:30 Trikitilarien kalejira.
- 22:30 Trikitilari-Panderojole/Folk/Pop/Rock taldeen kontzertua frontoian. Zortzi talde.

Ekainak 15, astelehena

- 18:30 Piano, saxo, klarinete, biolineko ikasleen audizioa, Zumarte Musika Eskolako Ganbaran.

Ekainak 18, osteguna

- 19:00 Bakarleri, bikote, talde instrumentalak... Ikasturte bukaerako kontzertua Sutegin.

LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA

Aurreko hitzordua: 635 701 374

- Arnasketa arazoak, disglosia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

ETORBIDA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**UDAKO
IKASTAROAK 2015**

**UDAN ERE
EUSKAHALDUNDU
ZAITEZ!**

aek

Garano ikasteko
para entenderlo
pour le comprendre



EUSKALTEGIAK

IKASTARO TRINKOAK, EUSKALDUNTZEA
AZTERKETAK PRESTATZEKO - ON LINE IKASTAROAK



**2 ASTEKO
BARNETEGIAK**

EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZEKO AUKERA - AZTERKETAK PRESTATZEKO



**FAMILIA
BARNETEGIAK**

EUSKARA IKASTEKO
SEME-ALABEKIN EUSKARAZ ARITZEKO



**BARNETEGI
IBILTARIAK**

OINEZ ZEIN BIZIKLETAN - MINTZAPRAKTIKA EGITEKO

673 200 100 · 946 464 000

www.aek.eus



• 100 orduko ikastaro trinkoak
UZTAILAN ETA IRAILAN

• 1., 2. eta 3. hizkuntza eska-
kizunak edo EGA prestatzeko
klaseak

607 609 379
usurbil@aek.org

www.muntteri.blogspot.com.es

Usurbil

ETUMETA AEK

Kale Nagusia,
45 behea
20170 USURBIL



Guztiok Gattunk beharrezkoak

Jaiak denontzat beharko lukete, baina oraindik ez daude pertsona guztien ezaugarrietara egokituak. Baliabideak, abiatzen diren proiektuak, antolatzen diren ekimenak benetan denontzat izateko oraindik badugu guztiok zeregina, #Kilometroak15 ekimenaren baitan osatu den Guztiok Gattunk batzordetik gogorarazten digutenez.

Estreinakoz Usurbilen sortu den bilgunea du Guztiok Gattunk, aurreko edizioetan ez da halako lan talderik izan. Jai eredu parekide eta jasangarriak soilik ez, inklusiboak izateko lanean dabil-tza buru-belarri. “Denok gara gu eta denontzako egin behar dugu”, baina denongan pentsatu behar horretarako, batzordetik diotenez.

Normala eta normala ez denaren arteko mugak dakarren zatiketa, gaituek desgaituak integratu behar dutela pentsatzea... Ikuspegiok aldarazi nahi dituzte Guztiok Gattunk batzordetik. “Denok gara gizarte honen parte. Gaitasun ezberdineko pertsonak osatzen dugu jendartea, eta gaitasun denak dira beharrezkoak”



Jai eredua parekide eta jasangarri izateaz gain, inklusiboa ere izateko lanean dabil-tza Guztiok Gattunk batzordeko kideak.

GUZTIOK GATTUNK

“Denok gara gizarte honen parte. Gaitasun ezberdineko pertsonak osatzen dugu jendartea, eta gaitasun denak dira beharrezkoak”

ondorioz, mendekotasun maila bat. Gaitasun ezberdineko pertsonak osatzen dugu jendartea, eta gaitasun denak dira beharrezkoak”, azpimarratzen dute batzordetik. Hori horrela izanik ere, egun oraindik, nabaria da jendartean dagoen zatiketa, esklusiorako joera.

“Gaurko gizartean normaltasuneko marrak jartzen dira eta halako kodifikazio maila bat jartzen da gai edo desgaita izateko. Eta marra horiekin bizi gara. Jaiak antolatzerakoan ere marrekin egiten dugu. Pentsamolde hori aldatzea litzateke batzorde honetatik landu nahi duguna. Pentsatu dezagun denengan”, diote Guztiok Gattunk batzordetik.

Ikuspegi aldaketan eragin nahi dute, baina ez bakarrik Kilometroak egunari begira. Urtean zehar bideratzen diren ekimenetan, hurrengo Kilometroak edizioetan, jaietan oro har eta jaietatik

haratago, “jendartea ikusteko moduan ere”. “Haiek” eta “guk” aipatzeari utzi, denok gattunk esatera igaro. Eta zer hobeto, #Kilometroak15 baliatzea inklusibitatearen balorea txertatzeko. Ikastolarentzako laguntza jasotzeaz gain, batzordetik gogorarazten digutenez, “balio transmisore” ere bada jaialdia eta jaialdia inguratzen duen guztia. Kilometroak jaia herri horren baloreen erakuslelhoa ere bada.

Jauzi praktikoa eman nahian

Batzordeak lanketa kontzeptualizaziotik abiatu zuten. Lehenbizi, inklusibitatea aipatzean, “zertaz ari garen jakin nahi genuen. Oso gai zabala zela jabetu ginen”. Eztabaida luze baten ostean, dokumentu bat adostu zuten. Dekalogo bat ere osatu dute, herriko eta Gipuzkoako eragile, erakunde ezberdinei helarazi dietena. Atxikimenduak bildu nahi dituzte, orain, “beraiek ere guk planteatzen dugun ideia honekin bat egin eta egunerokoan aplikatu dezaten”.

Praktikotasunerantz urratsak ematen hasiak dira

Ez dute konpromiso eta teorizazio mailara mugatzerik nahi. Paradigma aldaketa hau gauzatu nahi dute eta horretarako praktikotasunerantz urratsak ematen hasiak dira ikastola barrura, Usurbilera, eta Gipuzkoara begira.

Ikastolan irakasleekin lanketa burutu dute, ikasleekin irailan hasiko dira. Slalom egokituko jardunaldi bat ere antolatu zuten LHko 5 eta 6 mailakoentzat.



Slalom egokituan aritu ziren orain gutxi LH 5 eta 6 mailako ikasleak.

Herri mailan, kirol egokitua-ren inguruko hitzaldi bat an-

tolatu zuten maiatzean, irail-leko Topa Eszenikaren baitan

inklusi-bitatea jorratuko duen antzezlan bat ere programatu dute, Guztiok Gattunk egun bat ere bai. Gipuzkoa mailan, komun publiko uni-bertsala garatzeko proiektua ere bideratu dute. Kilometroak egunari begira gainera, zirkuituan eta guneean “ekarpen batzuk egin nahi ditugu”. Kilometroak eta Udarregi Ikastolaren web orrialdeak ere denontzat irisgarriak izateko egokitu dituzte. Guztiok beharrezkoak gattunk eta.

“Gaitasun anitzeko jendartearen beharrei erantzun nahi diegu”

Paradigma aldaketa gauzatzeko...

■ 1.- Integrazioetik inklusibitatez jotzea: desgaitasuna duten pertsonak integratu ordez, gaitasun ezberdinak ditugun pertsonen osaturiko jendarte inklusiboa eraikitzea.

■ 2.- Normaltasunetik aniztasunera: gizarte anitz inklusibo horretako aniztasuna kudeatu behar da.

■ 3.- Lengoiaren berreraiketa.

■ 4.- Gaia zehar lerroa izatea ikastetxe edota erakundeetan. “Proiektu berri baterako ideiak pentsatzen hasten garen unetik bertatik “guztiok” gaitasun ezberdineko pertsonak barnebiltzen ikasi behar dugu.

■ 5.- Jendarteak berak bilakatu behar du eraldaketa sozial



Dekalogo bat osatu dute.

eta kulturalaren protagonista. Jendarte eskubideak bermatzeko jatorri eta helburu.

Konpromisoa

“Usurbildik, Kilometroak15 ekimenetik, gaitasun ezberdinak ditugun eragileok, gai-

tasun anitzeko jendartearen beharrei erantzun nahi diegu, bai festa, bai ekimenak, bai hezkuntza, bai baliabideak guztiontzako pentsatuak izan eta guztiok parte hartu ahal izateko eraiki daitezten”.

Koreografia ere badu “Lotzen GaTTunk” abestiak

Haur Hezkuntzako eta LHko ikasleek eskaini zuten, lehen aldiz, Ikastolaren Egunean. Oiardo Kiroldegian eskaini egin ohi den urteroko ikuskizunean aritu ziren kantuan eta dantzan. Jaione Eskudero musika irakasleak zuzendu duen koreografia ikusi ahal izan genuen lehen aldiz, Gattunk kamiseta koloretsuak zeramatzaten haurrek dantzatua.



Koreografia bideoz jaso genuen.

Alokairu sozialean jarri dira sei udal etxebizitza

Udalak alokairu sozialean jarri ditu sei udal etxebizitza. Seirak Gernika Ibilbidea 13 kalean daude, Udarregi ikastolaren ondoan. Ekainaren 30era arte egongo da eskaera aurkezteko epea zabalik.

Maizterrak lehiaketa bidez hautatuko dira

Udalarenak dira 6 etxebizitzak. Alokairu sozialean jartzea erabaki du eta maizterrak aukeratzeko lehiaketa abiarazi du. Bertan parte hartu nahi duten herritarrek ekainaren 11tik ekainaren 30era bitartean aurkeztu beharko dute eskaera, Udaletxeko erregistroan. Izena emateko eskabide-orriak hala nola hautatze-prozedura arautuko duten oinarriak Usurbilgo Udaletxean eskuratu daitezke.

Etxebizitzak

Etxebizitzak 3 logelakoak dira eta 80 m²-ko azalera dute.



Gernika Ibilbidea 13 kalean daude, alokairu bidez esleitu diren sei etxebizitzak.

Eskatzaileak

Usurbilgo pertsona fisiko/naturalak edo, bi, hiru, lau edo pertsona gehiagoz osatutako bizikidetzako unitateak aurkeztu ahal izango dira, eta etxebizitza babestuetara aurkeztu ahal izateko ohiko baldintzak bete beharko dituzte: etxebizitza eza, gutxieneko eta gehienezko dirusarrerak izatea, gehienezko ondare jakin bat ez izatea... Etxebizitza jabetzan duten herritarrek ere lehiaketa

tan parte hartu ahal izango dute, baldin eta aurreikusitako premia egoeraren batean aurkitzen badira.

Kupoak eta erreserbak

Etxebizitzak zozketa bidez esleitu dira. Ondoko kupo eta erreserbak egin dira: lau kide baino gehiagoz osatutako bizikidetzako unitateak, etxebizitza bat; babes bereziko gizarte sektoreak (genero-indarkeriaren biktimak, bananduak, dibortzia-

tuak eta alargunak, gerora sortutako ordaintzeko ezinagatik ohiko etxebizitzaren jabetza galdu dutenak, adimen eta garapen-degaitasuna duten pertsonak), 2 etxebizitza; babesezko beste gizarte-sektoreak (30 urtetik beherako gazteak, beren kargura adin txikiak dituzten guraso bakarreko bizikidetzako unitateak), 2 etxebizitza; eta azkenik, kupo orokorra, etxebizitza bat.

Kontratuak urtebetekoak, urtez urte luzagarri

Errenta kontratuak urtebetekoak izango dira, eta urtez urte luzatu ahal izango dira gehienez bost urtera arte. Kontratuaren epemuga iristen denean, maizterrek Udalaren esku utzi beharko dute etxebizitza.

Errenta

Ordaindu beharreko errenta kuota, eskatzaile bakoitzaren diru-sarreraren menpe egongo da, eta urtero beraztertuko da.

Gerra garaian ezkutaturikoa bistaratzen

Azken bizpahiru urteetan sarritan igo dira Txaldataxur aldera, Zubieta gaineko mendixkak iraganeko hainbat istorio gordetzen ditu eta. Ezagutzen ez ditugunak. Mendixka bat baino askoz gehiago da ingurua, Islada Ezkutatuak Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko taldearentzat. Gerra Zibilak gogor kolpatu zuen ingurune honetan gertaturikoa ikertzen, eta batez ere garai hartan lurperatu eta apropos ezkutatu ziren gertakariak azaleratzen ari dira.

Hasteko ordea, kokatu gaitezten. "Txaldataxur Zubietamendin kokatzen den mendixka da, Oria ibaiaren gain-gainean. 1936ko abuztutik aurrera, Buruntza, Agerre Buru, Belkoain eta beste zenbait eremuen antzera, Gipuzkoan eratu ziren borroka guneez bilakatu zen", Islada Ezkutatuak taldeak nabarmendu nahi dutenez.

Euren esanetan, "Gerra Zibila, hemendik besterik gabe pasa egin zela" uste bagenuen, guztiz okerraren. "Badirudi Gipuzkoan gerrarik ez dela egon eta hori ez da egia. Hemen gerra handia egon zen, denbora mugatu batean. Gauza larriak pasa ziren, nahi baino gehiago. Hildakoak badira frontean, non hil ziren ez dakigunak, desagertuak, errepresaliatuak...". Gerra Zibilaz ari garenean, bereziki Bizkaia aipatzen den arren, Islada Ezkutatuak taldeak gogorarazten dutenez, "Bizkaian zerbait egiteko modua izan bazen, neurri batean gipuzkoarrei esker izan zen. Hemen eutsi zitzaion, ahal zen denboran".

Hainbat aurkikuntza

Taldeak gertutik frogatu ahal izan du, sarraski handia izan zela Txaldataxurreko lubakietan ere. Hainbat aurkikuntza egin dituzte azken urteotan, "bi bandoetako armaden bala zorro piloak, lehertu gabekoak eta lehertutako balak, eskuko granada, obusa lurtean sartuta eta lehertu gabe, obus puskak...". Oraingoz hilotzik ez ordea, nahiz goiz edo beranduago topatu ditzaketen.



Auzolan deialdi ugari egin dituzte Zubieta Lantzenekoekin, sasiz josia dagoen Txaldataxur ingurua garbitzeko.

ISLADA EZKUTUAK

"Badirudi Gipuzkoan gerrarik ez dela egon, eta hori ez da egia. Hemen gerra handia egon zen, denbora mugatu batean"

Txaldataxur... edo Estenaga

Hipodromoa izan omen zen gerrako eskenatokitako bat. Abiazioaren gunea, "hiru hegazkin bota zituzten matxinatuek". Txaldataxur ingurua bestea. Garai hartako hainbat dokumentuek Estenaga izenez ezagutzera eman zuten ingurua. "Txaldataxur beste izen batekin, Estenaga bezala agertzen da. Eta Estenaga, Zubieta-mendin ez da existitzen. Estenaga Aian dago, baina hemen kokatu zuten. Zer egin dugu? Planoetara joan gara. Espainiako ejertzitoaren mapak, Estenaga Zubietako mendian kokatzen du, Txaldataxur ez da inon ikusten. Horregatik, izena egoki jarri nahi diogu, behar den bezala".

Txaldataxurren borroka gogorra izan omen zen. Testuinguru hartan kokatzen laguntzeko, Islada Ezkutatuak Taldeak oroitarazi digutenez, defentsarako frontea, San Martzialen hasi, San Marko, Santiago-mendi, Santa Barbara eta Burun-

tza mendiak zeharkatzen zituen, Txaldataxurrera heldu arte. Gero Anda-tzatik barrena segitzen zuen. "Gerra hasi zenez geroztik, 2 helburu zituen Gipuzkoak defentsak; antolatzea, Nafarroatik bazetozela jakinda eta Donostian matxinatuak mende hartzea".

"Sarraski handia egin omen zuten"

Lekukotzen bidez jakin ahal izan dutenez, Txaldataxur aldetik ezin izan omen zuten sartu. Eraso-tzaileak taktikaz aldatu beharrean aurkitu ziren. Garate mendiko artzain bat behartu zuten Txaldataxur ingurua erasotzeko beste bide bat erakustera. Hala, Abalotz ingurutik heldu omen ziren hipodromoraino eta Bugati ondotik Txaldataxurrera irteera duen bidezidor batetik sartu ziren. "Errepublikarekin zintzo jokatu zutenek, bertan, defentsarako lubakien eta tiratzaileen hobiak antolatu zituzten, kolpezale militarrei aurre egiteko asmoz. Posizio errepublikar hori 1936ko irailean Cayuela Teniente Koronelaren tropek erasotu zuten", diote taldeak, gaineratuz, "sarraski handia egin omen zuten, pertsona pilo bat hil omen zituzten". Irailaren 6an hartu omen zuten Txaldataxur.

Aurkezpena eta bisita gidatua

Islada Ezkutatuak taldeko kideak asteartero biltzen dira arratsaldeko 17:30ean Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxean. Informazio gehiago jaso nahi duenak beraz, bertara jo dezake. Honez gain, Usurbilen oroimen historikoaren aldeko taldea osatzeko gonbita luzatzen dute. Animatzen direnei, "lehenbiziko pausoak ematen lagunduko diogula" adierazi nahi diete.

Taldea ezagutzeko, aurkezpen ekitaldi eta bisita gidatua antolatu dituzte datorren asterako:

Ekainak 15, astelehena

19:00 Islada Ezkutatuak taldearen aurkezpena, Zubietako Kaxkape egoitzan.

Ekainak 20, larunbata

09:00 Bisita gidatua Txaldataxurreko lubakietara, Lasarte-Oriako Okendo plazatik abiatuta. Harremanetarako: isladaezkutatuak@gmail.com



Gattunk ukitua izan zuen Ikastola Egunak

Kilometroak15 urtean gattunk eta igandean ospatu zen Ikastola Egunean argi islatu zen. Bai ikasleek urtean zehar egin dituzten lanen erakusketan edota Haur Hezkuntzakoen Kiroldegiko ikuskizunean. “Lotzen GaTTunk” abestiaren koreografia dantzatu zuten haurrek, Jaione Eskuderoen gidaritzapean.

Eta herrian #Kilometroak15 ekimenaren inguruan sortu den mugimenduak dakarren ondorioetako bat ziur aski. Ia 500 lagun batu zituen aspaldiko herri bazkari jendetsuenean bildu ziren, ikastolako langile, guraso eta ikasleak. Gurasoek auzolanean prestatu zuten bazkaria dastatu zuten. Aldaketa gehiago; goizeko ikasleen jolasetan. Zirkuitu modukoa antolatu du ikastolak aurren, ikasle denek denetarikoko ekintzak egin zituzten. Eta lehiakortasuna alboratzeko, proba puntuagarrikerik ez dute izan. Irudi gehiago: noaueus atariko Argazkitegian.



Aurreko igandean, ia 500 lagun batu ziren aspaldiko herri bazkari jendetsuenean.

Muntaketa batzordea, boluntario beharrea

Argiketariak, iturginak, kamioi eta kamioneta garraiolariak, igeltseroak edota muntaketa lanetan laguntzeko prest dauden herritarrek ongi etorriak izango dira taldean.

Animatzen zaretenok, gerturatu datorren astelehenean, ekainaren 15ean, #Kilometroak15 ekimeneko muntaketa batzordeak 19:00etan Potxoenean deitu duen bilerara. “Bertan izena eman nahi dutenak eta dagoeneko taldean daudenak elkartu nahi dira.

Orain gaudenok eta laster izango garenok, elkarri lagunduz eta elkarrekin gozatuz, goaztean!”, diote muntaketa batzordekoek.

KLIKmetroak zirkuitua osatzen

Ibilbideko lehen 100 metroak osatu ditu Klikmetroak egitasmoak. Parte hartu ez baduzu, animatu, egitekoa oso erraza da. Mezu bat idatzita, #Kilometroak15 ekimena laguntzeko aukera duzu doan, klikmetroak.kilometroak.eus atarian.

Estreinaldi jendetsua

Hunkidura eragin eta harre-beroa izan du Udarregi Ikastolaren sorreraren inguruan Aitziber Elortza eta Jexux Agirresarobek ekoiztutako dokumentalaren estreinaldiak. Aurreko ostiraleko proiektzioan Sutegi bete zuten, baita hunkitu ere. Egileek egitasmoan parte hartu zutenei eskerrak eman eta hausnarketarako gonbita luzatu zuten. Dokumentala aurrerago eskuragarri jartzeko asmoa dute.



Dokumentala, aurrerago, eskuragarri jartzeko asmoa dute. Irudian, Jexux Agirresarobe, Eñaut Lasarte eta Aitziber Elortza.

Mezuz mezu, metroz metro, KLIKmetroak osatzen

Udarregi Ikastola, euskara, Usurbil, Kilometroak ekimena edota ekimeneko leloa goraipatzen duten mezuez betetzen ari gattunk sarea. Ibilbideko lehen 100 metroak osatu ditu jada Klikmetroak egitasmoak. Parte hartu ez baduzu, animatu, egitekoa oso erraza da eta doakoa.

Norbanako bakoitzak metro bat egitean oinarritzen da “eta, bakoitzak metro bana eginda, ibilbideari ahalik eta itzuli gehien ematea. Bisitariak egindako metro bakoitzeko, babesleek dirua jarriko dute Kilometroak festaren alde”. Ibilbideko metro bakoitza,



Klik bakar batekin, zure mezua idatzita eta zure metroa osatuko duzu.

nork egiten duen, idatzitako mezua eta metroa diruz lagunduko duen babeslea, guztia ikusgai dago, klikmetroak.kilometroak.eus atarian.

Honakoa KLIKmetroak-en bosgarren edizioa izan arren, Kilometroak jaialdiaren lehen urteetako filosofia berreskuratzera dator. “Jaiaren hasta-

penei keinu egin eta zirkuitua Kilometroak jaiaren erdigunean kokatzen duen proiektua da KLIKmetroak. 1977an Beasain eta Lazkaon ospatu zen Kilometroak jaia lehen aldiz. Lehen urte hartan eta ondorengo urteetan enpresek eta elkarteek, korrikalari, ibiltari nahiz pertsonaia ezagunak babesten zituzten. Eta babes-tutako pertsonak zirkuituan zehar egindako kilometroen kopuruaren arabera ekarpen ekonomikoa egiten zioten zegokion ikastolari”. Jaiaren hasierako urte haietako filosofia berreskuratu asmoz landu nahi da ekimena; beti ere, garai berrietara egokituz.

Abantailak, euskaltegian orain matrikulatuz gero

Urritik aurrera, 2015-16 ikasturtean zehar euskara ikasi edo maila hobetu nahi duzuenontzat eskaintza interesgarria du AEK-k. Hainbat abantailaz baliatzeko aukera izango duzue, baldin eta izena ekainaren 19a baino lehen ematen baduzue: batetik, %5eko deskontua ikasturte berriko matrikulazioan; ordainketa malgua, epe bat gehituta ordainketa epeei eta lehentasuna taldeak eratzeko orduan.

Orain matrikulatuz gero, izen ematearekin batera, lehen diru ekarpena ere, hau da, lehenengo



%5eko deskontua egingo zaio ekainaren 19a baino lehen matrikulatzen denari.

ordainketa ere bideratu beharko da:

- 120 euro, 240 ordutik gorako ikastaroetan.
- 100 euro, 120-240 ordu arteko ikastaroetan.

Matrikulatu eta gerora ikastaroa

ez egitea erabakitzen duenarentzat oharra: "aurre-matrikularen %100 itzuliko zaizu, irailaren 26a baino lehen jakinaraziz gero. Data horretatik aurrera, matrikula-itzulketen ohiko baldintzak aplikatuko dira".

Udako ikastaroak

100 orduko ikastaro trinkoak uztailan eta irailan, lehen, bigarren eta hirugarren hizkuntza eskakizunak edo EGA prestatzeko saioak, 2 aste-ko barnetegiak, familia barnetegiak, barnetegi ibiltariak... "Udan ere euskahaldundu zaitez!" aldarripean, euskara ikasi edo maila hobetzera animatzen dituzte herritarrek.

■ Izen emateko eta informazio gehiago euskaltegian: Nagusia, 43

■ Orduategia: astelehenetik ostiralerara, 9:00-12:00 / 16:00-20:00.

■ 607 609 379.


usurbil@ae.org

muntteri.blogspot.com.es

Bihozkada taldearen debuta

Oholtza gainera igotzear da pop-rock talde berri bat; Bihozkada. Usurbil hautatu dute, estreinako emanaldirako. Ostiral honetan, ekainaren 12an, 19:00etan hasita Bihozkada taldekoen lehen kontzertua Sutegin. "Usurbildar guztiak eta ingurukoak emanaldira gonbidatuak daude. Ea gustuko duzuen, denen iritzia entzuteko prest izango gaituzue", diote taldekideak.

Estreinaldirako ilusioz eta gogotsu da Buruntzaldeko eta Tolosaldeko kideez osaturiko laukotea. Egunotan, entseguetan topera dabilta. Saioetan gozatzen duten moduan, lagun presoez, maitasunaz, denetarikoa gaiak jorratzen dituzten dozena bat kantekin, Sutegin publikoa gozarazteko prestatzen. Taldearen izenarekin egin daitekeen hitz jokoak baliatuz, bihozkada edo bi hozkada, abesti goxoak eta gogorregoak tar-tekatu dituzte erreperitorioan.



Ostiral honetan arituko dira Sutegin 19:00etatik aurrera. Sarrera doan.

Sutegi, gustuko agertoki

Kasualitatez abiatu omen dute proiektu berria. "Pixkanaka, piezak elkartzen joan dira, taldekideak biltzen, puzzlea osatu arte", adierazi dio NOAUA!ri Iñaki Lizasok. Taldea berria den arren, kide gehienak musika kontuetan murgilduak zebiltzan aurretik.

"Tomas Lizardi 3gabe2, Margot edo Kantuki musika taldeetan jo izan du. Bertso musikatuaren saioetan ere aritzen da. Nahikari Calleja ere taldeotan aritu izan da. Oinkari dantza taldeko musikariak dira baita. Oihan Agirretxek ere Itzartu

berbena taldean jotzen du, beste pare bat taldeetan ere aritu izan da. Mundu honetan berria neu naiz", adierazi digu Lizasok. Gitarra ikasten hasi zen duela bi urte eta musika munduan barneratu da vil-labonarra.

Jabetuko zineten honez gero. Bihozkadan ez dago usurbildarrik. Horregatik, debutatzeko Sutegi nolatan hautatu duten galdetu diegu. "Lasarteko San Pedro jaien aurretik, jendaurreko emanaldi bat eskaini nahi genuen, toki goxo batean. Alex Telloren "Zu Gabe" antzezlanak ikusten egon nintzen. Sutegi aretoa ezagutzen genuen beraz. Alexek lagundu digu. Gainera, Usurbil herri giro handiko toki bat da. Toki aproposa izan zitekeela iruditzen zitzaigun", adierazi digu Bihozkada taldeko kide Iñaki Lizasok. Usurbilgo saioaren ostean, Lasarteko eta Zizurkilgo jaietan izango dira udan. Beste hainbat emanaldi ere ahoz hitzartuak dituzte.



Joxe Mari Alduntzin eta Aingeru Esnaolarentzat 'Bizi baratztea' liburuak

NOAUA!ko bazkideen artean zozketak egiteko ohitura dugu. Azkenaldian arrakasta handiena izan duen zozketa azken haurre izan da: 'Bizi baratztea' (Argia). NOAUA!ko bazkideek email bat idatzi behar zuten. Hori baino ez. Eta email denen artean egin dugun zozketan, hauek izan dira sarrituak: Aingeru Esnaola eta Joxe Mari Alduntzin.

Zirkuitu termala Orio Aisian

Hurrengo zozketa hori izango da. zirkuitu termala Orioko Aisian. Ez da emailik bidali behar izango. Zozketa bazkide denen artean egingo dugulako. Zorte on!

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Otar-Goxo
Elkagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Usurbil KE-ko bazkideen batzarra

Bazkideak batzar batera deitu ditu Usurbil Kirol Elkarteak ekainaren 13rako, goizeko 11:00etan Suitegin. Honatx gai zerrenda:

- 1-Lehendakariaren agurra.
- 2-2014/2015 denboraldiaren kirol balantzearen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 3-2015/2016 denboraldiaren kirol aurreikuspenen aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 4-Diru-kontuak. 2014/2015 denboraldiko balantzea eta 2015/2016 denboraldiko aurrekontuaren aurkezpena, eta onarpena, egoki bada.
- 5-Galdera-eskaerak.

Usurbil KE-ren eguna, ekainaren 20an

"Adin desberdinetako nes-



Usurbil KE-k urte gogoangarria osatu du, beste behin ere. Larunbat honetan, goizeko 11:00etan ospatuko dute bazkideen batzarra Suitegin.

ka-mutilak, entrenatzaileak, beteranoak... eskubaloian jokatzen ikusi ahal izango ditugu. Eta gauean, indarrak berreskuratze-ko, herri-afaria. Txartelak salgai Aitzagan eta Bordatxon egongo dira ekainaren 17ra arte. Afarira

denei deitzen zaie, adin guztietako jokalariei, entrenatzaile, delegatu, zuzendaritza-kide, eta aurtan bereziki, baita guraso, zaletu, beterano eta klubarekin zerikusia izan duen guztiei", nabarmendu dute Usurbil KE-tik.

Berria txapelketako finalaurrera iritsi dira

Andoaingo Arrate frontoian jokatuko dute finalurrekoa. Eta aurkarien etxean. Gazteleku taldea andoaindarra baita. Usurbilgo Pagazpe elkartekoak hala ere, fin ari dira eta finalerako txartel bila kantxaratuko dira. Igan- de honetan, goizeko 11:00etan. Hauek izango dira Pagazperen izenean arituko diren pilotariak:

■ Jubeniletan:
Aranberri-Odriozola

■ Kadeteen mailan:
Exposito-Aranguren

■ Nagusien mailan:
Santxo-Gorrotxategi

Bandera berri bat Sarai Lizasorentzat



San Juan taldeak Espainiako Trainerila Txapelketa irabazi berri du eta arraunlarien artean zen Sarai Lizaso. Zorionak!

Udako kanpaina prest Oiarko kiroldegian

Uda parterako, kirol ikastaro eskaintza zabala prestatu dute beste behin ere Oiardo kiroldegian. Ezagutzera eman berri dituzten jardueren artean, 8-13 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduriko Kirolarekin Jolasean, igerilekuko ikastaroak haur nahiz helduentzat, eta pilates, aerobik, zumba, spinning...

Ordutegien berri jaso edo informazio gehiago batu nahi duenak Oiardo kiroldegira jo dezala edo deitu dezala 943372498 telefono zenbakira. Oiardoren Facebook-ean ere bada informazio zehatza.

Alebin futbol taldeko gurasoen bilera

2015-16 denboraldiko taldean parte hartu nahi dutenek, ekainaren 8an gerturatu behar zuten Haranera izen ematera. Ekainaren 13an guraso bilera egingo dute.

Kadeteen taldea osatzeko deialdia

Datorren 2015-16 denboraldian futboleko aritu nahi duten kadete mailako jokalariek (2000-01 artean jaioetakoek) osteguneko Haranera gerturatu daitezela, 18:00etan. "Taldea arduradunek, jokatze prest dauden datuak bilduko dituzte. Entrenatzeko arroparekin azaldu", ohartarazi dute Usurbil F.T.-tik.

Usurbil FT Eguna

Ekainaren 20an ospatuko dute herriko futbol taldeek, kirol urteari amaiera emango dio jai eguna. Egunean zehar jolasak antolatu dituzte taldeko kide gaztetxoentzat. Eta gauean Atxega jauregian afaritarako bilduko dira, jokolari, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideak.

Andatzarekin, Lokizera

Asteazkena baino lehen izena eman zuen herritar taldea igande goizeko 7:00etan abiatuko da Oiardo Kiroldegitik autobusez. 18 kilometrotako Narkue-Urbisu bidea osatuko dute. Tartean Arnabamendia igoko dute. Informazio gehiago: andatza.com

Zumba festa

Zaletuentzako aukera ezin hobea, probatu edota trebatzeko. Eta jai giroan. Zumba festa antolatu dute larunbat honetarako, 16:30-18:30 artean Oiardo Kiroldegian.

TAXI
24 h
ORAIN 8 PLAZA!
677 37 34 66 Joxe
943 36 21 78 Etxabe

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitarztekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Artzi
Patri 2022
Jatetxea
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 • © 688 690 361

ARTZABAL
Baserria - Jatetxea
943 36 91 39
artzabaljatetxea.com

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Santuenean. Egoera onean. 3 logela, sukaldea, komuna eta nahi izan ezker garaje moduko batekin. 659 460 979.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Pisu bat salgai Erreka-txiki kalean. Sukalde-egongela, 2 gela, komuna, balkoia. Ganbara egongelarekin lotua. Garaje itxia barne. 210.000 euro. 656716844 Enrike

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Pisua salgai, Artzabalen. 3 logela, 2 komun, terraza eta trastelekua (altzariekin) eta garajea (2 kotxerentzat). 657 771 126

Etxe salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 222.000 euro. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Etxebizitza salgai Zubietan. 1. Esk. 118 metro koadro, baratza 2.500 m eta oilategia 140 m. Erreformak egiteko. 200.000 euro. 616 649 674 Jabier.

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

959 Julien.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxia. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin ejina. 608 227 462. Prezioa jaitxi dugu; orain, 36 milioi pezetatan.

Etxe salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxe salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak. 677 471 648.

Atxegalden lau logetetako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

2 lagunentzako alokairuko pisu bila. Beheko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Abxegalden etxe bat, 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela, estudioa, argitsua, sartzeko prest, berogailu zentralarekin, 670 410 273

Gela bat alokatzen dut Erreka-Txikin. 665319105 / 943367232

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682

214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatze 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

Hiru gelako pisu bat alokagai Erdialdean. Igogailuarekin, guztiz kanpokaldera. 630 713 583.

2 logela alokatzen dira kontratu eta erroldarekin, Usurbilen. 631 411 867.

Bikote gaztea, gela bat edo biko pisu bila. Nominak ditugu, maskotarik ez. 686 056 040 (Maria-no).

Gela baten bila nabil, partekatutako pisu batean. Tel. 619 817 460.

Lasarte edo Usurbil aldean pisua partekatze pertsona baten bila nabil. Prezio ekonomikoa! 646305465

Pisu bat bilatzen dut alokairuan Usurbilen. Tel. 602 127 725.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Garajea aukeran. Prezio ona. 657 535 299.

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Baju komertzial bat salgai erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapax-etik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santu-Enea auzoan 671547567

Kawasaki Vulcan 500eko motorra duena salgai. Prezio onean. 667 055 553

Garaje bat alokatzen da, Zubiaurrenean 10ean. Tel. 620 024 663.

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uz-

teko izango litzateke. 645720571

Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen da. 943361235

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro karratukoak. Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Txapeldun taberna alokairuan edo salgai: 676 976 005.

Urte osorako zerbitzari euskalduna behar dugu Aginaga sagardotegian, asteburuetan lan egiteko. 943 366 710

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabil. Interna moduan ere bai. Asteburu eta jai egunetan ere lan egingo nuke. Tel. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketari, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egin eta umeak eta helduak zaintzeko. Feli-gatik galdetu. 620 625 823.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezindua edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketari egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketari... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna eskaintzen da ume txikiak zaintzeko edo garbiketari egiteko. Irailetik aurrera. Arduratsua. 671 547 567.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, fillosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titularekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezala ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak



Zorionak Aner!

Hilaren 16an bi urte beteko dituzu, izan egun ona eta muxuak zuretzako.



Zorionak Aita!

Ekainaren 14an, zure urte betetzea da. Muxu potolo bat Jon eta Mirenen partez. Ondo pasa!



Zorionak Udane!

Hurrengo astelehena Ekainak 8, 4 urte beteko dituzu. Muxu Potolo bat Aginagako irakasle partetik.

zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. **Esperientziarekin. 722 575 781.**

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketetan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. **Esperientzia altua. 657 535 299.**

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papela egunean. Tel. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. Tel. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile tituluarekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta **erreferentziekin. 631 333 251**

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta **erreferentziekin. 653 620 770**

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta **erreferentziekin. 672 740 521**

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo hospitalean pasatzeko. **Esperientziarekin. 648 761 874.**

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. **Erreferentziekin. 638 602 597.**

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. Tel. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketa eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrek emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeko garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketan edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

Neska arduratsua lana bilatzen du interna moduan eta etxeko garbiketarako egiteko. 631 122 350.

Etxeak margotu eta dekoratzen ditut. Paisaiak, aurpegiak... agertzen diren koadroak egiten ditut. Altxariak konpondu.

634 181 059.

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeko garbitzeko. 696 601 795

Klase partikularrek ematen ditut, L.H-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatze eta lan honetan esperientziaduna.(618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzaile moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaixo dauden pertsonen erizain zainketak emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrek emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

BESTELAKOAK

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Geltokiaren ondoan "skate" egiteko patinete bat aurkitu dut. Galdutako baduzu deitu 943 362 088.

Giltza batzuk galdutako DIA supermerkatu inguruan. Diru-zorro beltz batean, eta 4 giltzekin. Aurkitu badituzu udaltzaingora eramatea eskertuko nuke.

Artzabal inguruan gitarra bat galdutako. Aurkitu baduzu deitu zenbaki honetara. 608 566 683.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negozia garri. **usurbil72@hotmail.es**

Usurbil, Zubieta edo inguruan, 15.000 m lur saila alokatuko nuke. Enara: 647 438 895

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Sofa-ohe bat salgai. 70 euro. 655 731 915.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. **Asteburutan. 688888176. Pablo.**

Mutil gazte bat prest dago, rotatorearekin lurra biratzeko eta eskuz buelta emateko lurrari. **Prezio ekonomikoa. 610 14 19 40**

Gidari arduratsua bat eskaintzen da etxe pribatu baterako. Libre ordu desberdinetan. 696264197.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salvatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 11	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 12	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42. Lasarte
Larunbata 13	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Igandea 14	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Astelehena 15	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteartea 16	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Asteazkena 17	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte	

Ekainak 11-ekainak 21

Osteguna	18	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte	
Ostirala	19	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Larunbata	20	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea	21	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

Agenda

12 ostirala

■ **Gure Esku Dago** 19:30ean bilera Potxoenean. 19:30ean mahai ibiltaria, frontoian.

13 larunbata

■ **Zumarte Musika Eskolak 30 urte: ospakizun eguna.** Ikus 12. orrialdea.

■ **Usurbil K.E.-ko bazkideen batzarra.** 11:00etan Sutegin.

■ **Zumba festa.** 16:30ean kiroldegian.

14 igandea

■ **Andatzakoen irteera, Lokiz mendizerrara.** Abiatzeko hitzordua: goizeko 7:00etan, Oiardo kiroldegitik (izen-emaitea ekainaren 10ean amaitu zen).

Ekainaren 18an osteguna, Xilipurdiren 'Gaur jaia' ikuskizuna

NOAUA! Kultur Elkartaren eskutik, eta aurtengo Plis Plas Txalo Eta Jolas ekimenaren baitan, haurrentzako emanaldia ekainaren 18an, arratsaldeko 17:00etan frontoian: Xilipurdi, "Gaur jaia". Adin guztietako ikusleentzako animaziozko eta musika ikuskitun bat da. Batez ere haurrei zuzenduta dagoe-na. Jai giroan garatzen da, musika zuzenean akziozko eta partehartze jolasak, puxikekin, uztaiekin, jausgailuekin, lehiaketak, dantzak, pailazokeriak elkarren atzetik doaz, txikiek eta handiek naturaltasun osoz parte har dezaten, eta ez era lehiakor batean".



"Gaur jaia" ikuskizuna eskaintzera datoz. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da ikuskizuna.

Artzabalgo pintura taldeko lanen erakusketa

Artzabalgo pintura taldekoek urtean zehar eginiko lanen erakusketa ipiniko dute Sutegin. Ekainaren 19tik 21era egongo da ikusgai, honako ordutegian:

■ Ostiralean: 15:30etatik aurrera, 19:00etan inaugurazioa.

■ Larunbatean: goizez 10:00-13:00.

Arratsaldeaz 17:00-20:00.

■ Igandean: 10:00-13:00.

■ Tokia: Sutegiko erakustaretoa.

■ Antolatzailea: Artzabalgo pintura ikastaroko taldea.

Afari beganoa Usurbilgo gaztetxean

Ohi bezala ekaineko bigarren ostegunean 20:30etatik aurrera Usurbilgo Gaztetxean, bonrodatearen truke.



Afalostean Isuo Sassia arituko da kantuan.

Datozenak

Kalezarko San Joanak

Ekainak 19, ostirala

18:00 Buruhandiak.

19:00 Auzotarren arteko jokoak.

23:30 Voltaia, Lauroba, Zesuma.

Ekainak 20, larunbata:

Oilasko Biltzaileen Eguna

09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria (txartelak Kaffa kafetegian ekainaren 10ra arte salgai).

16:00 Musa (izen ematea 15:30ak arte).

18:00 Dantzariak. Ondoren, buruhandiak.

00:00 DJ Gude.

Ekainak 21, igandea: Umeen Eguna

10:00 XIII. Ume krosa.

11:30 Jolasak.

16:30 Tailerrak.

18:00 Txokolatada. Ondoren, buruhandiak.

19:00 DJ Burundarekin dantzaldia.

Ekainak 23, asteartea: San Juan bezpera

15:00 San Juan eskearen irteera.

22:00 San Juan sua. Ondoren, eskearen jarrapena.

Ekainak 24, asteazkena: San Juan Eguna

11:30 Meza Nagusia. Ondoren, toka.

13:00 Gorritiren Showa.

17:00 Buruhandiak.

19:00 Soka Dantza. Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik.

GERAR
BARNEALDEKO PINTURAK
PAPEREZTATU, LISOAK...
USURBIL 630 70 20 10

zuri arrain
iturgintza
TEL: 678 45 31 48 • ZUBIETA
zuriarainiturgintza@gmail.com

ELORZA
O BRAK ETA
ERREFORMAK S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

XILIPURDI "GAUR JAIA"



Ekainak 18, osteguna
17:00h frontoian

noqua



Euzko Jaurlaritzaren Gubierno Vasco



Euzko Jaurlaritzaren Gubierno Vasco



Euzko Jaurlaritzaren Gubierno Vasco

Edertu zaituz!

aholkularitza

IRUDI ALDAKETA

MAKILAJEA podologia

ile-moztea

ILE-JASOTZEAK

KOLOREA

ESTETIKA

Loli Lizarralde

ESTILISTA

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

Inar

ESTETIKA

Zure azala
Kalitate handiko
produktuekin
zaintzen dugu

Natura Bissé
Boisblond
DOUBLE ACTION HYDRO
PROTECTIVE DAY CREAM

munalurra 2, Usurbil 943 571 680

Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAT

AUKERA ONENA

artzabal baserria 626603600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

INSTAMATIC
KOLORE EZAIZEN JOERA

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

KOLORE

BEGETALAK ETA NATURALAK

Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462

Berrria!

GOLDWELL
ELUMEN

m
i l e a p a i n d e g i
mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

9.00etatik 19.00etara zabalik

Zubiaurrenea 4 • 943 361 951